

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanak hiru helburu nagusi ditu: kontsumitzaile berriak sortzea, enpresak aurretik zituen bezeroei eustea eta salmenta aukera kopurua handitzea . Helburu hau lortu ahal izateko gure enpresak estrategia ezberdin batzuk aurkeztea hoberena izango dela pentsatu du.

Gure produktua hobeto ezagutu ahal izateko eta ikusgarritasun gehiago emateko web- gune bat sortuko dugu, bezeroek hurbilago sentitu ahal izateko guran eta edozein zalantza edota arazo konpondu ahal izateko. Bertan ere gure deskontuak eta produktu berriak publikatuko ditugu, bezeroak beti jakin dezan zer nolako gauzak eros ditzazke. Hortaz aparte web-gune horretan ilea hobeto zaintzeko hainbat aholku edota tip azalduko ditugu.

Dyson-ekin elkarlanean arituko garenez bere web-orrian ere gure produktua ikusgai egongo da, baina edozein zalantza eukiz gero hobea da gurean sartzea dena argiago egongo baita .Hau gutxi balitz, korreo elektronikoko eta telefono zenbaki bat ere izango ditugu galderak pertsonalki erantzun ahal izateko. Azkenik, bezero bakoitzak bere iritzia eman ahal izateko postontzi bat sortuko dugu web-gunearen barruan, bakoitzak libre senti zezan. Baita, gure produktua zein lekutan egon daitekeen kokapena ezarriko dugu google maps-en laguntzarekin .

Guzti honekin lortuko duguna beraiei laguntza eta gauzak erraztearen ondorioz, epe luzean guran konfiantza handia hartzean datza. Lehen esan dugun moduan, iritzi postontzi bat jarriko dugu bezeroen iritzia oso garrantzitsua delakoan gaudelako eta horrela komunitate osasuntsu bat sortuko dute beraien artean. Honetaz aparte hauen iritziekin web-gunean sartuko den jendea aurreikuspen bat izango du gurekiko eta aurreikuspen hori ona baldin bada gure produktua erosteko abantailak izango ditugu.

Bezeroek erosoago egoteko etxeko zerbitzua izango dugu, hau da, beraien produktua aste bateko epean gehienez etxean izango dute. Edozein arazo tekniko izanez gero, fabrikazio puntura eramango da konpontzeko, baina bakarrik urte bateko epearen barruan baldin bada.

Web-gunez aparte ere sare sozialetan parte hartzea erabaki dugu. Gaur egungo gizartea horretarako bizi dela dirudenez abantail hori aprobeixatu nahi dugu. Ez dugu aplikazio guztietan kontu bat sortuko baina bai bereziki, instagram, facebook, google+ eta twitter-en. Bertan bezeroek bidalitako bideoak zintzilikatuko ditugu, nagusiki gure produktuekiko esperientziak izango dira baina ere hainbat aholku emango ditugu ile- gotorlekuarekiko.

Honekin lortu nahi duguna bakoitzak bere ile onena ateratzean datza.

Beraz zeren zain zaudete?